



KOMIKIEN MUNDUAN BARNERATURIK

Joseba Antxustegietxartek 11 urtetan egin dituen komikiak ikusgai egongo dira bihartik aurrera, Kultur Etxean >2

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2008-03-29

VIURTEA 1394.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Mikel Amundarain, Alegiko bere txokoan, saskiak egiten. N. URBIZU

SASKIGINTZAREN ARTEA MIKEL AMUNDARAINEN ESKUETAN ISLADATURIK

ALEGIA Mikel Amundarainek Alegian duen txokoan egiten ditu eskuz saskiak; jubilatuz ondoren hasi zen zeregin honekin 6-7

ANDU MARTINEZ DE RITUERTO ATLETA

«Plaziat bezalako atletekin lehiatze hutsa luxua izan da»

TOLOSA Beteranoen Munduko Atletismo Txapelketan 9. postua lortu du, pentatloian 4



N. REGO

Mikel Nieve eta Aitor Olano «pozik» Gaztela eta Leongo Biran egindakoarekin 5

Patxaran Baines txapelketako finalerdia jokatu du bihar Altuna I.ak 4

Oharra:
ordu aldaketa



Ordua aldatuko da gaur gauean: 02:00etan 03:00etara aurreratu behar dira erlojuak.



Zenbat hamaika mila?

Citroën C4
11.600€*tik aurrera



Citroën C3
8.900€*tik aurrera



Citroën C4 PICASSO
5 eserlekukoa,
19.050€*tik aurrera

Antxustegietxarteren 11 urtetan egindako lana ikusgai

Tolosa » Galtzaundi aldizkarian argitaratutako bere komikiak bildu dituzte eta Kultur Etxean ikusgai dira bihartik aurrera.

ERREDAKZIOA

Joseba Antxustegietxarteren lehendabiziko komikia 1997an argitaratu zen *Galtzaundi* aldizkarian. Orain, urte hauetan guztietan komikigileak egindako lana erakutsi eta aitortzearen, erakusketa batean bildu dituzte euskara taldekoek, eta ikusgai izango dira Tolosako Kultur Etxean. Erakusketa aste guztian zehar egongo da zabalik. Aste egunean, 17:00etatik 20:00etara eta larunbat nahiz igandetan, 10:30etik 13:30era.

Komikiak egiteko afizioa txikitatik dator kio Pasai Donibanekoari. Baina duela 11 urte hasi zen lanarekin Antxustegietxarte, eta geroritik, hamabostean behin hutsik



Galtzaundin argitaratutako Joseba Antxustegietxarteren komiki bat. HITZA

egin gabe, borondatez egiten ditu komikiak.

Komikigilearen esanetan gaurkotasuna eta ironia dira bere komikiaren ardatz nagusiak. Autodidakta dela dio, eta marrazkigintzako ikastaroren bat egin badu ere, komikigintzakorik sekula ere ez. Izan ere, berarentzat, komikiak egiten ikastea jolas modukoa izan da, batzuetan onerako, eta beste batzuetan txarrerako. Komikigile-

aren helburu nagusia irakurleek ondo pasatzea da, etalan hori betetzeko asmoarekin astitzen du arkatza.

Galtzaundi aldizkizkarian ez ezik, *Ostielan*, *Brankan* eta *Oarsoaldeko* hamabostekarian ere argiaratu izan dira Joseba Antxustegietxarteren komikiak. Bestalde, lehiaketa ezberdinetan saritutako komiki bildumetan ere agertu izan dira bere beste zenbait lan.



Aitzondokoak sagardo etxean

AISA » Kaskagor elkarteak antolatuta, Sagardo etxera txangoa egin zuten Aitzondo bailarako 20 gaztek. Ordubeteko bisita honoetan sagardo egiteko prozesua zein den ikusi ahal izan zuten, eta baita egiten ikasi ere. Izan ere, honetarako aukera izan zuten. Ilbilbidean, haziak lantatu zituzten, eta hauek udara aldean lorea emango dute. Honela, Aitzondokoek beraien sagarrondo bat izango dute Astigarragan. HITZA

Zurea da hitza info

Bidegorriak kostatzen ahala kostatzen

Tolosa » Herrian bidegorria izatea oso ongi dago, baina nola jartzen diren ere begiratu behar da.

IBAN

Niri oso ondo iruditzen zait herrian bidegorria jartzea, horrela guztiek baitute euren lekua herri-tik mugitzeko. Baina, herri osoan bidegorria jarri behar dela eta ez du uste edozein modutara jarri behar denik.

Horren adibide bat da, Zabalarreta parkearen ondoan dagoena. Hor bidegorria dagoela esatea ton-



Zabalarreta parkearen ondoko bidegorria. HITZA

takeria iruditzen zait, ez baitago zati bat autoentzatat eta beste baxxi-rrinduan doazentzat, denentzako leku bera dago.

Gauza da, autoentzako bidean bidegorria pintatu dutela. Leku horretakoa, beraz, ez dut uste oso ondo dagoenik.



Eresargi Txiki abesbatzak Ejeako lehiaketaren hasieran izan zen. HITZA

Eresargi Txiki Ejeako lehiaketaren irekieran

Villabona » Txapelketan parte hartzeko gonbidatua izan zen abesbatza; harako Alberdiren 'Alami' ipuina prestatu dute.

ERREDAKZIOA

Villabonako Eresargi Txiki abesbatza Ejea de los Caballeros-eko ospe handiko txapelketaren irekieran parte hartzeko gonbidatu

dute. Kontzertu honetarako Josu Elberdinen *Alami* ipuina prestatu dute. Ana Iparragirre pieno-jotzaileak lagundu du alde batetik, bestetik, koreografia eta narrazioa Xabier Ormazabalak egin du. Azkenik, abesbatza, Arantxi Padillaren eskutik egongo da zuzenduta.

Ejea de los Caballeros-eko abesbatza lehiaketa tradizio luzeko txapelketa da. Hau 16.000 biztanleko aragoar herria da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ezohiko bilkura egingo dute asteazkenean, batzar aretoan, 20:00etan

Villabona » Arrasaten izandako atentatuari buruzko moziok aurkeztuko dituzte EAJ eta EAE alderdiek.

ERREDAKZIOA

Datorren asteazkenean, apirilaren 2an, Villabonako udaletxeko batzar aretoan, ezohiko osoko bilkura deitu dute. 20:00etan izango da, eta ondorengo gai-zerrenda landuko dute:

Batetik, aurreko bi bilkurei dagozkien aktak onartzeko proposamena egingo dute. Bigarren gaia Arrasaten martxoaren 7an izan zen atentatuari buruz EAJ-PNV eta EAE-ANV udal taldeek aurkeztutako moziok aztertzea izango da. Hirugarrena arau subsidarioetako La Salvadora areako babes ofizialeko etxebizitzaren eskabideak formalizatzeko baldintzen plegua onartzeko proposamena, eta laugarrena, udal etxebizitza tasatua arautzeko udal Ordenantza onartzeko proposamena izango da.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen.: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutzte Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarano autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltegiak: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

S Soka motzean

«la alfonbra batzuen truke erosi gintuzten Turkian»

JONE GOROSTARZU

Euskara irakaslea

I. TERRADILLOS

Turkian igaro ditu Aste Santuko oporrak Jone Gorostarzu (Berastegi, 1984).

Zer moduz igaro dituzu opor egunak?

Oso ondo, primeran.

Zergatik joan zara Turkiara?

Egun batetik bestera otu zitzaigu niri eta laguneri.

Gomendatzeko modukoak?

Bai, oso polita da. Guk Istanbul, Capadocia eta Pamucalia ezagutu ditugu, hiruak ere erabat leku desberdinak.

Turkiako mutilak ala euskaldunak?

Euskaldunak, baina han adina kasu egiten dutenak.

Hitz politik esaten zizkizueten ala?

Bai, baina oso deigarria egin zitzaiguna hauxe izan zen, ia alfonbra batzuen truke erosi gintuztela.

Bertako pasadizo bererizirik izango duzu noski?

Eurovisionen Espainia ordezkatzeko duen *Chiqui Chiqui* abestia askotan entzun dugu han, hori ere oso deigarria egin zaigu. Baina benetan harrigarria euskaraz hitz egiten entzutea izan da, «saldá badago», «agur agur eta jan jogurt» bezalakoak entzun ditugu.

Lanera bueltatu al zara?

Ez, oraindik ez. Astelehenean, eta oso gogorra izango da.



E ZEIZA

Udan haur sahararrak etxean

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak, iaz egin zuen bezala, Euskadiko Fronte Polisariok antolatutako *Oporrak bakean* programan parte hartzea erabaki du.

Programa honen helburua Aljeriako Tinduf hiria ondo

errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren 8 eta 12 urte arteko haurrek, uda (uztaila eta abuztua) he-mengo familietan igarotzeko aukera izatea da. Ibarrako Udalak, ohikoa den moduan, bere gain hartuko du hauetako 4 haurek hartzeko gastua.

Programa hau abian jartzeko, euren etxeetan haur hauek hartzeko prest dauden Ibarrako familien laguntza behar dutela adierazi dute. Informazio gehiago jaso nahi duenak udaletxeko Gizarte Zerbitzuen Departamentura joan daitezke.

@ Irudietan. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK VII. Argazki Lehiaketa antolatuta du. Aste Santuko oporraldian ateratako argazkiak badituzu beraz, bertan parte har dezakezu, eta agian ditugun sarjietako bat eskuratu dezakezu. Parte-hartzaile guztien argazkiak eskualdeko egunkariaren webgunean daude, *Irudietan* izeneko atalean. Parte hartu nahi dutenek argazkiak tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera bidal ditzakete:

www.tolosaldeko-hitza.info

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdigunean bi logelako etxebizitza salgai. Egoera onean. Oso merkea. Deitu 665 70 86 35 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Muxala.** Galdu da Uli aldean. Deitu 653 71 12 59 zenbakira.

ARAMBURU
Salgai (Alkiza). Etxe handia lursailarekin, 4.000m², guztiz eraberritua.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Soldadu kalean, sartzeko moduan.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza garajearekin, Trinkete auzoan, Salgai (Tolosa).
Etxebizitza. Nagusia kalean, 1. Igoailuarekin sartzeko moduan eta bestea eraberritzeko eta igogailurik gabe.
Salgai (Tolosa). Garajeak, San Frantzisko, Leidor auzian eta Amarozen.
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, IXiminiarekin, erdigunean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantzisko eta Araba etorbidean.
Alokatzeko (Ibarr).
Pabiloi industrial, Leaburuko bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
...ETA ORAIN
PROBIGURRAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

hitza 5 urte
h h JAIALDIA h h
Apirilak 5 • Larunbata

17:00:
Tolosako Beotibarren
Xurdiren kontzertua.
Sarrerak: harpidedunentzat 3 euro, besteentzat 5 euro.

18:00:
Mus Txapelketa azkarra
Tolosako Oargi Elkartean, Irabazleentzat bazkaria edo afaria Tolosako Isastegi sagardotegian.
Parte hartzeko, 17:30ean Oargin bertan izena eman beharko da eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

21:00:
Bertso afaria
Tolosako Oargi Elkartean, Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu eta Diego Riaño bertsoariak.
Txartelak salgai Zizurkilgo Aurreran, Tolosako Raku eta Denak eta Leitzaoko Torre tabernetan. Harpidedunentzat 20 euro, besteentzat 25 euro.
Afalostean poteo herrikoia, trikitiaz lagundurik.

E Elkarrizketa

ANDU MARTINEZ DE RITUERTO > Atleta

«Plaziat bezalako izen handiko atletekin lehiatze hutsa luxua izan da»

Tolosa » Gaztetxoa zenean atletismoan aritu zen; aurtengo Beteranoen Munduko Atletismo Txapelketako pentatloiko proban 9. egin du, munduko onenen ondoan.

NEREA URBIZU

Lazkaokoa da berez, baina Tolosan bizi da (1968). Andu Martinez de Rituertok Alegian egiten du lan, gorputz heziketako irakasle. Modu batera edo bestera kirolarekin beti izan du lotura handia. Munduko Txapelketan beteranoen mailan lortu berri duen 9. postuak badu bere bizimoduarekin harremana. Gaztetxoa zenean ere hainbat sari eskuratu zituen bere espezialitatearekin: altuerako jauziekin, hain zuzen.

Beraz, ez zara duela gutxi hasi atletismoan.

Ez. 21 urtera arte atletismoa egin nuen Ordiziako taldearekin, gaur egun Txindoki atletismo taldea dena, alegia. Kirolari beti lotuta egon naiz: mendia asko gustatzen zait adibidez, eskalatzeari... Familia osatzearekin ez dut nahi adina astirik izan, baina inguruko mendiak eta elurrak aprobetxatu ditugu ere. **Nola hasi zinen beteranoen mailan hainbeste urteren ondoren?**

Duela 3 urte inguru Txindoki atletismo taldeak (Euskadiko Lehen mailan dago) Euskadiko Taldeko Txapelketarako altuera saltatzeko norbait behar zuten eta ni deitu ninduten. Hasieran barre egin nuen, 16 urte neramatzalako iltzeko zapatillak jantzi gabe. Azkenean proba hori egin nuen eta txukun xamar, 1,70 metro. Ikusi nuen beteranoen mailan marka horrekin ondo ibiltzea zela eta ininteresatzen hasi nintzen.

Eta iaz Espainiako Txapelketan parte hartuta bigarren?

Altuera jauzian, bai, 2007an. Aurtengo, Berazubi gertu izanda, astean hiru lau aldiz joaten naiz entrena-

tzera eta aurtengoan ere parte hartzera animatu nintzen berriz. Serio urrian hasi nintzen prestatzen Munduko Txapelketarako, ikusi nuen esperientzia polita izan zitekeela. Oso pozik nago egindakoarekin, garai bateko sentsazioak berreskuratu ditut. Uste nuen ez nintzela gai izango potentziazko edo teknika asko eskatzen duten probak egiteko. Hori, hein handi batean da oinarri on bat daukadalako, gaztetan ibilia naizelako, alegia.

Espainiako txapelalduna izan zara. Zein probatan?

Ovedon (Espainia) hiru probatan hartu nuen parte: pentatloia, 60 metro hesitan eta altuerako jauzia. Pentatloian eta altuera jauzian lehenengo egin nuen, eta 60 metro hesitan, berriz, bigarren. Pentatloian baitan hauek dira egin beharrekoak: pixu jaurtiketa, altuera jauzia, luzera jauzia, kilometro batetako lasterketa eta 60 metro hesitan.

Eta Munduko Txapelketan?

Honetan bi proba egin nahi izan nituen: pentatloia eta altuera jauzia, baina azken hau azkenean ez nuen egin, familiarekin joan nintzen eta turismo pixka bat egiteko aprobetxatu genuen. Bi proba hauek egun desberdinetan ziren eta ez zitzaigun ondo etorri bigarrena egitea. Pentatloian 9. egin zuten Munduko Txapelketan. 40 bat parte-hartzaile izan ginen, baina Clermont Ferrand-en (Frantzia), guztira 3.800 atleta gauden: antolakuntza itzela zegoen.

Zer moduzko esperientzia?

Oso polita eta luxuzkoa. Adibidez, Christian Plaziat frantziarra (Europako txapelalduna izandakoa senior mailan) han zegoen. Mailagorekoak ziren: lehenengo seriean bere ondoan egokitu zitzaizkidan, eta ezkerrean itxuraz beste gizon beldurgarria (1,92 metrokoa, 95 kilo inguru). Philips ere han zen: lehenengo hiru postuak lortu zituztenak dekate oso onak dira mundu mailan ere. Beraiekin lehiatzea bakarrik luxua da. Banekien joan



N. U.

aurretik zenbat puntu zeuzkaten eta banekien maila oso altua egongo zela. Lortutako emaitzarekin ere gustura. Pentatloiko luzera jauziarekin eta pixu jaurtiketarekin ez nintzen gustura geratu, baina, hala ere, entrenatu nuela islatzen dute emaitzek, txukun ibili nintzen. Parte-hartzea oso polita izan da.

Zein marka egin zenituen?

60 metro hesitan 9 segundo eta 48 zentesima, altuera jauzian 1,81 me-

Entrenatzen eta hau dinamizatzen dabilzanek izugarriko meritoa daukate

tro eta 1.000 metroko lasterketan minutu eta lau segundo. Ramon Cidek lagundu dit azken hilabetean.

Gazteagoa zinenen altuera jauzia zen zure berezitasuna, ezta?

Bai, baina ikusi nuen proba bakoitzean zabalduzanean itxutu egiten zarelax pixka bat, obsesionatu. Atle-

tismoa kirol gogorra da. Beti zabilteza neurtzen, azkartasuna, arintasuna... Baina frogan ez zaizu nahi bezala ateratzen. Horregatik, orain lasaia hartuz eta modalitate bakar batean ez espezializatuz gehiago gozatzen da.

Tolosan atletismoarekiko afizio edo tradizioa badago.

Bai, Tolosan mugimendu asko dago. Beteranoen artean bada Armando Roca adibidez. Frantziara joan zen txapelketara baina lesio bat izan zuen. Baina badira gehiago ere. Hor dugu Berazubi estadioa ere. Xabier Arratibel, Iban Gallego eta beste hainbat korrikalari ere badaude, eta gazte askorekin dabilteza lanean. Hauen lana kontuan hartu beharrekoa da, eta meritoa daukate entrenatzen eta hau dinamizatzen dabilzanek. Iker Epelde korrikalaria ere azpimarratzeko da... Askok daude inguruan eta kontuan hartu beharrekoak.

Aurten zer gelditzen zaizu?

Gandian Espainiako Txapelketa izango da ekainean, udakoa, asmoa behintzat badut.

Altuna I.ak Patxaran Baines txapelketako finalerdia bihar jokatu du

Erremontea » Sarasua jokalaria gaur egingo du profesionalekiko azken partida, erretiratu egingo baita.

ERREDAKZIOA

Master Patxaran Baines txapelketako finalerdia jokatu du bihar Altuna I.a amezketarrak Etxabearekin batera, eta Juaristi-Iriarteren aurka. Euskal Jai Berrin (Huarte) izango da partida hau, 16:30etik aurrera, aurretik beste partida bat baitago Larrea-Baleztena eta Zalakin-Etxezabalekin.

Sarasua erretiratu egingo da

Gaur, berriz, Asteasuako Sarasua jokalaria bere azken partida egingo du profesionaletan, erretiratu egingo baita. Galarretan ariko da bigarren partidari Lizasorekin batera. Haien arerioak Altuna II-Etxabe izango dira, 16:00etatik aurrera. Ondoren, Zeberio II-Etxeberria izango dira Ezkurra-San Miguelen aurka.

Jai Batzordearen lehenengo bilera egingo dute asteazkenean Alegian

ERREDAKZIOA

Datorren asteazkenean 19:00etan Alegiko jai batzordea Kultur Etxean bilduko da. Lehenengo bilera da eta bertan jaiak antolatzen hasiko dira. Batzorde hau irekia da eta «alegiar guztiak bertara gonbidatu nahi ditugu». Horregatik, jendea espero dute azaltzea ideia berriak emateko eta proposamenak plazaratzeko.

Egun berean, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute eta horretarako, 18:00etan Amaia Zinkunegi ipuin kontalaria gonbidatu dute Alegiko liburutegira.

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA**JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA****Fleming ikastetxea.**

Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)
Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 69 14 13
012277aa@hezkuntza.net

Matrikulazio
epea:
Martxoaren 31tik
Apirilaren 11ra arte

**Erriboea Ikastetxea.**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Arratzainen (12-16 urte)
Tel.-faxes: 943 69 37 33
012952aa@hezkuntza.net

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Telefonoa:
943651063
Webgunea:
www.samaniego-tolosa.com
Posta elektronikoa:
012244aa@hezkuntza.net

• HAUR HEZKUNTZA
(2 URTEK HASITA)
• LEHEN HEZKUNTZA



07:30etik
aurrera
Haur txokoa

Telefonoa:
943651387
Webgunea:
www.orixe.net
Posta elektronikoa:
012980aa@hezkuntza.net

• DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
• ZEREGINEN IKASKUNTZAKO GELA
• LAN HASTAPEN EGOKITUA
• BATXILERGOAK

D EREDUA - KALITATEZKO IRAKASKUNTZA

MATRIKULA EPEA: MARTXOAREN 31tik APIRILAREN 11ra



Tontorra zena jada zelai bihurtu dute makinek

ARESO ● Apirillean urte bat egingen du Elutsedergo industrialdea handitzeko obrak hasi zirela eta hilabete hauetan inguru hura dena zelai bihurtzen lan handia egin dute makinek. Construcciones Sukia Eraikuntzak SA enpresa aukeratu

zuen Udalak horretarako, eta obrak amaitzen direnean, lehenago tontorra zegoen lekuan 5 industria-lursail egonen dira. Horretarako oraindik zenbait hilabete falta diren arren, dagoeneko Elutsederren bere egoitza jarriko duen enpre-

tako batek zenbait aresoar kontratatu ditu eta Gipuzkoan ari dira lanean, gero obrak amaitzen direnean Elutsederren bertan hasteko. Udalak hartutako erabakiaren ondorioz, industrialdeko lurrek inordainduko dio Sukia enpresari. **N. GARZIA**

Mikel Nieve leitzarrak eta Aitor Olano altzotarrak Gaztela eta Leongo Bira amaitu dute

Txirindularitza » Bai bata, bai bestea, «pozik» gelditu dira egindako lanarekin, baita Orbea Oreka SDAko zuzendaria ere.

NAIARA GARZIA

Mikel Nieve leitzarrak eta Aitor Olano altzotarrak XXIII. Gaztela eta Leongo Itzulian parte hartu dute, Orbea Oreka SDA taldearekin. Orotara 16 taldek parte hartu dute eta tartean ere atzerrikoak izan dira, Luxenburgoko, Holanda, Danimarka, Portugal, eta Venezuelakoak, esaterako eta 5 etapa egin dituzte.

127 izan dira Gaztela eta Leongo biran parte hartu duten txirindulariak eta Orbea Oreka SDA taldearen barruan, Mikel Nieve leitzarrak eta Aitor Olano altzotarrak hartu dute parte.

Saillkapena

Atzokoa azkeneko etapa izan zen eta erredakzioa itxi zenerako oraindik emaitzak emateke zeuzkatenez, saillapen orokorrean zenbagarren gelditu diren gaur jakinaraziko dute.

Mikel Nieveri dagokionez, astelehenean 82. iritsi zen, asteartean

60. postua lortu zuen, asteazkenean 66.a eta ostegunean, 23.a.

Aitor Olano altzotarra, berriz, astelehenean 101.a iritsi zen, asteartean 111.a, asteazkenean 99. a eta ostegunean 65.a.

Alvaro Gonzalo de Galdeano Orbea Oreka SDAko zuzendariak 2 txirindularien inguruko balorazioa egin du. «Aitor Olanori dagokionez, bere debuta izan da profesionaletan, eta orduan uste dut berarentzako beldurra kentzea izan dela gauzarik garrantzitsuen eta aldi berean itzulia amaitzea lortu du. Niretzako interesgarria zen berak itzulia amaitzea, bera beldur horrekin gelditu ez zedin. Nik uste

dut afizionatu mailan zeramatzan urteetan baino gehiago ikasi duela, baina oraindik gaztea da eta denbora eman behar zaio».

Mikel Nieverentzate aurten bigarren itzulia izan da. «Nik uste etorkizuna duen txirindulari bat dela argi utzi duela, gaztea izan arren, beterean dela dirudi, korrika egiteko duen moduarengatik».

Nieve eta Olanoren iritziak

Mikel Nievek eta Aitor Olanok ere bira honen inguruan gogoeta egin dute. «Aldaketa izugarria dagoela ikusi dut aurretik ibiltzen nintzen karrerarekin konparatuta», dio Olanok, «gauza asko dauzkadala ikas-

teko ikusi dut, eta behintzat bukatzea lortu dut. Aurreneko karrera zen eta horrekin pozik gelditu naiz, baina lanean segitu beharra dagoela argi dago. Niretzako atzoko etapa izan zen gogorrena, asko sufritu nuen eta momentu kritiko dezentente pasatu nituen».

Nievek bere burua «nahiko ongi» ikusi duela azaldu du. «Valentzian ere nahiko ongi ibili nintzen, eta orain ere bai, nahiz eta bukaeran atzo pixka bat kostatu egin zitzaidan. Atzokoa izan zen etaparik gogorrena, baina nahiko pozik gelditu naiz. Valentziatik hobera egin dudala ikusi dut eta ea horrela jarraitzen dudana».

Mendiko kategorian Orbea Oreka SDAk garaipena lortu zuen, talde honetako Ivan Melero txirindulariak irabazi ondoren.

» ETAPAK

- **Astelehena.** Valsain-La granja de San Ildefonso (9,7 kilometro, erloju kontrako proba).
- **Asteartea.** Segovia-Avila (141,7 kilometro).
- **Asteazkena.** Valladolid-Villa del Libro de Uruña (159,9 km).
- **Asteazkena.** Carrion de los Condes-Montaña Palentina (160,8).
- **Asteazkena.** Guardo-Riaño (158).



- 2 urteko gela. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

MATRIKULA EPEA:
Martxoaren 31tik
apirilaren 11ra arte

Matrikulazio Ordutegia:
 © 943 65 46 13-65 29 32
 9:00-13:00 - 15:00-18:00
anoeta@ikastola.net





• (2-9 URTE)
 • Lehen Hezkuntza

'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'



San Migel, 5 • 20271 IRURUA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net



Mikel Amundarain saskiak egiten hasi zen, baina gaur egun aulkiak ere egiten ditu: bere sendiko txikiak bana daukate. Irudian, Berastegiko bi bilobekin. N. URBIZU

ZUMITZEKIN JOLASTEN

Alegia » Saskigintza aspaldiko kontua da, beharra zen, baserrietan falta ez zena. Egia esan, baserri bakoitzean saskiak egiteko baten bat izaten zen.

ERREDAKZIOA

Noizean behin, askotan agian, Alegialdean, badira ezkutuan dauden halako harribitxi batzuk. Honakoan, Mikel Amundarain saskigileaz ari gara: zumea bere eskuetan artelan bihurtzen duen horietako bat.

Saskigintza aspaldiko jarduerak da Euskal Herrian: garai batean saski hauek oinarritzko produktuak ziren. Behar zehatz bakoitzeko saski mota bat zegoen. Ia baserri guztietan egiten ziren saskiak, bakoitzak behar zituenak eta bakoitzak ahal zuen moduan. Bizimoduaren aldaketarekin eta material berriak agertzearen ondorioz, ohitura hau desagertzen joan da. Gutxi dira, beraz, egun saskigintzan aritzen direnak, eta horietako bat da Mikel Amundarain.

Amezketatik Bedaioara

Amundarain Amezketako Beantetxerri baserrian jaio zen duela 73 urte. Iruña baserriko Tere Goikoetxearekin ezkondu zen Ugarte eta bertan jarri ziren bizitzen.

Hemen jaio ziren beraien 4 seme-alabak ere, baina badira ia 30 urte Alegian bizi direna. Gaur egun, Alegiko Larraitz auzoan dauka Amundarainek saskigintzan aritzeko bere txoko edo sasi-tailerra.

Jubilatu zenean hasi zen saskiak egiten, denbora pasan, duela 10 bat urte. Beantetxerri bere aita Joxe Mari eta Iruña baserrian Pedro Goikoetxea ikusi izan zituen lan honetan. Bi hauei ikusitakoak gogoratuz hasi zen bere kasa lanean, beraiei begira egon ohi zeneko-etan ikusitakoak praktikan jarri nahian, hain zuzen.

Ez zuen, ez, bere lehen saskia gaur egun egiten duen bezain erraz egin. Aspaldi ikusitakoak gogoratuz hasi zen eta batzuetan ez atzera ez aurrera geratu izan zen, nola jarraitu ez zekiela. Bere eredu izandako biak jada hilik zeudenez bere kabuz joan zen Mikel pixkanaka-pixkanaka teknikaz jabetzekin, aldi berean bere estilo eta berrikuntzak sartuz.

Haiengan ikusten zuen horretatik hainbat aldaketa egin ditu, lana

errazago egin ahal izateko: lanerako mahaixoak, moldeak, lanean aritzen bitartean saskia geldirik mantentzeko sistema...

Saskiak egiteko prozesua

Honako prozesua jarraitzen du saskia osatzeko: adarretik zumitzak ateratzen ditu, adar bakoitzetik 8-10. Ondoren, zumitzak zuritu egiten ditu. Oinarriko zumitzak moztu eta oinarria egiten die jarraian.

Moldea jarri ostean lanerako mahaian oinarria lotzen du. Buel-taka hasten da gero zumitz luzearekin, bilbe egituran. Zumitz bat bukatutakoan beste batekin jarraitu egiten du. Zutik dauden zumitzek izango den saski horren altuera markatuko dute. Hasierako bueltak bi zumitzekin egiten ditu.

Nahi adina altuera emandakoan uztaie egokia aukeratu edo egiten du. Uztaie hauek aurrez eginda izaten ditu batzuk, lehortzen utzita, forma eta tamaina desberdinetakoak, eta bestela behar duena egiten du. Berak egokitako molde batean edukitzen ditu forma hartzen. Uztaia kola eta iltzearekin lotzen du.

Bukatzeko, txukundu egiten du dena: loturak ziurtatu, tarteko zumitz puskak moztu... Aldez aurre-

tik dena prestatuta baldin badu, ordu batean saski bat egiteko gai da.

Bere aurrekoei ikusi zien bezala, Amundarainek urritzaren adarretik egiten ditu saskiak, eta oinarri-rako gaztainoondorena erabiltzen

Aurretik dena prestatuta baldin badu, ordu batean saski bat egiteko gai da Amundarain

Saskiak eta beste hainbat gauza egiten ditu, aspaldi ikusitakoak gogoratzen dituelako

du. Uztaia egiteko urritzaz gain bestelakorik ere erabili izan du: aranondoa edo sahatza, esaterako.

Egur bila Altzo ingurutik

Altzo ingurutik ekartzen ditu behar dituen adarrak. Urteko edozein garaitan biltzen ditu. Izerditsu dagoenean azala errazago kentzen zaio baina hala ere, urte osoan zehar biltzen eta erabiltzen ditu berak.

Forma, tamaina, kolore edo erabilera desberdinetakoak dauzka. Saskien artean daude baita Amun-

darainek egiten dituen makila eta aulkiak ere.

Batzuetan, dio bere ilobak, «etxe ondoan bertan izaten ditugu artisaurok hobereenak». Egia biribila. Eta honen berri gehiago eta argazki interesgarriak ikusi nahi izanez gero, Txintxarrisferan ikus daitezke, interneten, Eider Amundarainek egin baitu lan eder hau, saskigilearen ilobak, besoetakoak.

Asmatzailea, ia behartua

Saskiak eta beste hainbat gauza egiten ditu, ikusitakoak gogoratzen dituelako: autodidakta dela esan daiteke, beraz. Horregatik, hainbat tramankulu asmatu ditu ere; saskiak egiteko garaian tresna bitxiak asmatu behar izan ditu, lana errazteko, hain zuzen ere. Beraz, saskigile izateaz gain, Amundarain asmatzailea ere badela esan daiteke.

Eskuz egindakoak, noski, eta erosoago lan egitekoak dira asko, tamaina txiki hauek, irudimena behar dute hauek ere sortzeko. Saskiak egiterakoan bezala, tramankuluak asmatzeko berezko zera hori behar da, ikasita jasotzen ez den dohai hori, eta honekin erakutsi du Amundarainek, saskiak egiteko zaletasuna izateaz gain, balioa ere baduela.

Saskiak bai, baina ez eskuz egindakoak

N. URBIZU

Gaur egun saskigile gutxi geratzen da, gutxienez, eskuz egiten dituzten horietakoak. Gero eta arraragoa da halakoak ikustea, eta noizean behin, azoka berezietan ikus daitezke.

Orain egiten dituzten saski asko beste material batzuek daude eginda: egur berezietan, eta batez ere, plastikoz: baina funtzioa, ez da aldatu. Hau da; patatak gordetze-ko, fruitu lehorrak uzteko, onddo-otara joateko, barazkietarako... Hori mantendu egin da. Baina, beste funtzio bat ere gehitu egin zaio: apaintzearena, alegia.

Saskiak bere horretan badu edertasun bat; dotoreak izan daitezke kasu askotan. Eguberrietako aginaldoetan ere, ohitura da saski eder bat jartzea. Ez da berdina elikagaiak poltsa batean jasotzea, edo saski eder batean jasotzea. Batzuk, loreontzi moduan erabiltzen dituzte saskiak, landareak bertan sartuta eta honela bi elementu eder daude erakusgai.

Funtzioak funtzio, etxe guztietan dagoen zerbait da saskia. Ezin konparatu, ordea, munduko formatakolore bitxiak ere izan ditzakeen saski batek edo eskuz egindako batek duen xarma.



Gaur egun material ezberdineko saskiak egiten dituzte, eta normalean ez dago eskulanic. HITZA



Aulkiak ere egiten ditu Amundarainek, sokaz. N.U.



Urteen poderioz, Amundarainek asmakuntzatxoak egin ditu bere oraingo lana errazteko. Irudian, horietako bat. N.U.



Tamina, funtzio eta era askotako saskiak dauzka bere lan egiteko txokoan, Alegian. Hauek, eginberriak dira. N.U.

«Ez dut azoketara joateko ohiturarik»

MIKEL AMUNDARAIN » Saskigilea

Alegia » Alegian dauka saskiak egiteko txokoa: denbora gehiago behar da, antza, materiala lortzeko saskia egiteko baino.

N. URBIZU

Amezketarra, saskigilea jubilatuzenez geroztik. Alegian bizi da aspaldi Mikel Amundarain (Amezketan, 1935). 10 urte daramatza saskiak egiten baina badirudi bizi osoa daramala. Hiru biloben bisita izan du aulki bat egiten zuen bitartean: Oier, Naroa eta Oihane. Han zegoen ere Teresa, emaztea.



N.U.

Zuk aitari eta osaba bati ikusita ikasi zenuen, gogoratuta. Zuk baduzu ikaslerik?

Ez, ez diot inori inoiz irakatsi. Lehengoan Mikel semeak aipatu zuen, berak hartuko zuela saskigintzaren afizioa nire ondoren. Auskalo!

Azoketara joateko ohiturarik baduzu?

Ez naiz azoketara joaten, ez dut ohiturarik. Behin, duela urte batzuk Alegian egin zen bat eta izan nintzen, baina ez naiz gehiagotan izan. Nik gehienbat etxerako egiten dut, eskatu ere, eskatzen didate. Orain material ezberdin asko dago eta azoketan ikusten direnak

beste egur edo material batzuk dira.

Zer egiteko gai zara?

Mota askotako saskiak, euskarriekin, euskarririk gabe, bastoiak ere bai, eta aulkiak: azken hauek soka erositara egiten ditut. Egurra ere pixka bat landu behar izaten dut. Biloba bakoitzak bana dauka, nik eginda.

Zein tresneria erabiltzen duzu gauza hauek egiteko?

Ezer gutxi, hiru tresna, oso oinarritzakoak: egurra zuritzeko laban moduko bat... Baina denbora behar da: denbora gehiago behar da prestatzeko, egiteko baino.

Saskiak aitari ikusita, eta aulkiak nolatan?

Barre egingo duzu kontatutakoan: Altzoko fraileetan behin nengoela, sokaz egindako aulkiak ikusi nintzen eta neure buruari esan nion, ez zela zaila izango halakoak egitea. Eta horrela hasi nintzen.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Anoeta.** 2008ko jaiak iragartzeko kartela egiteko lehiaketa martxan da. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira apirilaren 18a baino lehen.

■ **Ibarra.** WingTsun ikastaroa apirilaren 2tik ekainaren 23ra, astelehen eta asteazkenetan, 20:30ean. Izen-ematea, kiroldegian 84 eurotan (ez bazkideek 117).

■ **Tolosa.** Gerra Zibilean errepre-sioa jasan zuten biktimen eta familien informazioa jasotzeko bulegoa Aranburu Jauregian, astelehenetan 16:00etatik 20:00etara, asteartean 09:30etik 13:00etara eta ostegunetan 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Aranzadi zientzia elkartean antolatuta.

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek Asturiasera bidaia antolatu du apirilaren 23tik 28ra (pentsio osoa 250 euro, 245 ez bazkideek). Izen-ematea, elkartearen bertan egin ahalko da.

■ **Tolosa.** Iturriza jubilatutako elkartek (Euskal Herria plaza) Portugalera eta Fatimara bidaia antolatu du apirilaren 14etik 19era. Izen-ematea, elkartearen bertan egin ahalko da.

■ **Villabona.** Aizkardi elkartearen 40. Ibilaldia da bihar. Bi ibilbide Leizaranen zehar: hamar ordukoa, eta 5 ordu eta erdikoa. Izen-ematea, www.aizkardi.com, elkartearen edo 649717182 zenbakian.

Erakusketak

■ **Alegia.** Patxi Tena urtero Kubara joaten da eta bertatik, artea ikasten duten ikasleek lanak ekartzen ditu. Ikusgai hilabete osoan zehar jubilatuen tabernan.

■ **Tolosa.** Euskarazko komikien erakusketa bihartik aurrera, Kultur Etxean, 17:00etatik 20:00etara ostegunetan, eta 10:00etatik 13:00etara asteburuan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Betzu eta urrezko zintzaria* haurrentzako filma emango dute Leidor aretoan gaur 17:00etan. *Jumper* filma 19:30ean. Eta *En el valle de Elah* filma 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



Garraiobide segurua ote?

VIL HITZA ARGAZKI LEHIAKETA Kepa Goikoetxea tolosarrak argazki honekin hartu nahi izan du parte Hitza Argazki Lehiaketan. Berak kontatzen duen bezala, «Aste Santuko opor egunetan Aljeriako Tinduf hirirean ondoan dauden saharar errefuxiatuen kanpamentuetan izan nintzen hango familiari bisita egiten. Oporraldi motza izan da, baina hori bai, oso egun bereziak izan dira. Argazkian, han, desertuan, oso ohikoak diren gamelak ikus daitezke». Zure opor egunetako argazkiren batekin Hitza Argazki Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, tolosaldean@tolosaldeko hitza.info helbidera bidali besterik ez duzu egin behar.

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA
PEDRO M^a OTAÑO HERRI ESKOLA
Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkuntza.net

2-16 Urte
uzturpe
ikastetxe bat baino gehiago
bi urteko gela
ludoteka
ikastola
apirilaren 1ean
ATEAK ZABALIK IKASTOLAN
18:00an